



Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia

Familia mota desberdinak. Bada familia guztietan hezteko jarraibide bateraturik?

Familia bakoitza desberdina da. Familia bakoitzean faktore desberdinak biltzen dira eta horiek dute familiarengan eragina. Familia osatzen duten pertsonak, inguruan dituen baldintzak eta familiak berak propio dituen ezaugarriak (gaitasunak, baliabideak, zailtasunak,...) berezituak dira. Halaber aintzat hartu behar dira garatu eta ezartzen diren harreman afektiboak edota eratzen diren familia-dinamikak, ohiturak, antolakuntza ereduak eta baita transmititzen diren arauak eta baloreak ere.

Gaur egun dauden familia egitura desberdinak kontuan hartu behar dira (adopziozkoak, bananduak, berreraikiak, homoparentalak, guraso bakarrekoak...). Errealitate horretatik abiatzeak, familiaren kontzeptua berriro definitzera garamatza. Ez dago klasifikazio baten beharrik, ez dago familia bakoitza leku batean edo bestean kokatzeko motiborik. Izan ere, azken ikerketek adierazten dute familia egiturak ez duela haurren garapen psikologikoa erabakitzen. Zehazki, haurren garapen psikologikoa eragiten duena eta garrantzia duena, familia-testuingurua eta familia-testuinguru horretan ematen den kalitatezko harremana dela azaltzen dute.

Familia bat ez da bestea baino hobea. Familia bakoitzak indarguneak eta zailtasunak ditu, horregatik familia talde bakoitzaren aniztasuna errespetatu eta baloratu behar da. Jarraian azaltzen diren baldintzak betetzen dituen familiak hazkuntza prozesua aurrera eramango du zinez:



- **Segurtasun afektiboa ematea**
- **Familia-gatazka ekiditea**

- **Hezkuntza-estilo demokratikoan hezte**a: exigentzia eta afektua orekan jartzea suposatzen du.
- **Kalitatez elkar eragitea eta estimulatzea**: besteak beste, jolasean aritzea, imitatzea, hitz berriak ikastea...
- **Frustrazio optimoa praktikatzea**: bere adinera egokitutako erronka txikiak eta zailtasunak jartzea, nola edo hala, erronka horien aurreko estrategiak eta konponbideak modu autonomoan garatzeko eta bere lorpenez harro sentitzeko.

Ez da erraza egunerokotasunean baldintza horiek betetzea. Presak, lana eta familia-bizitza bateratu behar izateak...heziketa zailtzen du. Hala ere, gure seme-alabak hezi eta hezten ditugu, eta gogo onez egiten dugu.

Jakin badakigu, familiak modu esanguratsuan eragiten duela haurren garapenean. Horregatik, familia-testuinguruak baldintza optimoak ezarri beharko ditu neska edo mutil bakoitzaren abilezia pertsonal eta sozialak sustatzeko, bakoitzaren beharrezkoak indibidualak lehenetsiz.

Urola Garaia Mankomunitateak antolatu duen gurasoentzako hitzaldi-tailerrean seme-alaben garapen psikologiko ona zer den partekatzeko eta kontrastatzeko aukera izango dugu, baita, egunerokotasunerako aholku praktikoa ezagutzeko ere. Hitzaldi-tailerra, **gaztelaniaz izango da eta datorren astelehenean, apirilak 11**, Legazpiko udalerrian burutuko da, **Kultur Etxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 18:00etan hain zuzen.**

ETXADI. [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](#) Egin zure kontsulta telefono bidez: 94405 1549 (Asteartero: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30era) edo www.etxadi.org webgunean **Urola-Garaia Mankomunitateko inprimakia betez.**